

Estatalizazioak kalte larria eragiten die lan-baldintzei

**“Negoziazio kolektiborik gabe
ez dago autogobernurik”**

2016ko apirilaren 4a



SARRERA

Patronalen estrategiak helburu argi bat du: erreformei ahalik zuku gehien ateratzea etekinak ugaltzeko, pobretutako lan-baldintzen kontura. Legeak honetarako eskaintzen dituen abantailen artean negoziazio kolektiboaren estatalizazioa dago. Horretarako bidea erraza da: patronalak hitzarmenen negoziazioa blokeatzen du beren iraunaldia galdezaten, ultraaktibitatea amaitzean; aski du denbora igarotzen uztea hitzarmen estatalak indarrean sar daitezen, eta hauek askoz okerragoak dira. Patronalari babes betea ematen diolarik helburu hauek errazteko, bestalde, Eusko Jaurlearitzi ez zaizkio bat ere axola estatalizazio estrategiaren eragin lazgarriak.

1.- ERREFORMEK SARITU EGIN DUTE PATRONALAREN BLOKEOA

2011ko ekainean Zapateroren Gobernuak erreforma laborala bat erabaki zuen zeinak, besteak beste, CEOEri, CCOOi eta UGTri aukera ematen zien Madrilen erabakitzeko Euskal Herrian sektore-hitzarmenak negoziatzeko aukera galaraztea. Lege horrek ahalmena ematen zien lurralde mailako negoziazio sektoriala indargabetzeko (hitzarmen probintzialak, alegia). CCOOk eta UGTk Lege hori garatu dute, beren xedea izan delarik negoziazio kolektiboan monopolio moduko bat izatea, akordio oso txarrak sinatu eta patronalari bake soziala ematearen truke.

Gero PPK ezarritako erreformak (2012), berriaz, bi aldaketa oso larri ekarri zituen: hitzarmenen ultraaktibitatearentzako epemuga eta aplikatzerakoan erabateko lehentasuna enpresa-hitzarmenari, sektorialaren gainetik; hots, enpresetan sektoreko baldintzak baino okerragoak hitzar-tzeko aukera zegoen.

Bi erreforma bortitz hauek besteak beste Espainiako Bankuaren eskariak bete zituzten; izan ere, banku zentralak argi asko esan baitzuen negoziazio kolektiboan bi eremu besterik ez zirela geratu behar: estatukoa, "Espainiako merkatu-batasuna" aldezteko, eta enpresakoa, malgutasunaren bidetik lan-baldintzak "lehiakortasunaren eskakizunei egokitzeko". Horrekin soldatak jaistearen eragin behar zen, Espainiako Bankuak "soldata-debaluzioa" izendatu duena.

Ultraaktibitatea urtebetera mugatu izanak ezagutu izan dugun negoziazio kolektibo

goitik behera aldatu du. Patronalak negoziatu ezean, saria lortzen du, hitzarmenak bere indarra galtzen baitu; horretxetan ari da kasu gehienetan.

Erreformek hitzarmenen iraunaldiaren amaiera, enpresa-hitzarmenaren lehentasuna eta negoziazio kolektiboaren estatalizazioa ekarri zuten

2.- ZEIN IZAN DA CONFEBASKEN POSIZIOA?

1.- Aipatutako PPren erreforma baino lehenago, Confebaskek ELAri 2011ko uztailean Lanbidearteko Akordio bat iristeko aukera aipatu zion, euskal hitzarmen sektorialak "blindatze" aldera. Akordio haren xedea izango zen eragozteko estatuko hitzarmen sektorialak EAEn inposatzea. Sindikatuak Confebaski hori aztertzeko borondatea adierazi zion, baita proposamena idatziz helarazteko eskatu ere. Haatik, ELAk ez zuen testurik jaso. Hiru hilabete geroago, Confebaskek iritziz aldatu zuen: bere lurraldeko organizazioei (Adegi, Cebek eta SEA) proposamenari buruko kontsulta egin omen zien, eta hauek ez zuten onartu: ez zuten nahi sektoreak blindatzeko lanbidearteko akordio bat, gehiago baizik: enpresentzako malgutasun handiagoa eta gatazkak eragozteko mekanismoak.

ELAk esan zien ez zuela horrelakorik onartuko. Ordurako Confebaskek eta bere bazkideek bazekiten, ELAk bezalaxe, Rajoy prestatzen ari zen erreformak askoz botere handiagoa emango ziela.

2.- Gogoratu beharra dago, gainera, PPren erreforma indarrean sartu zenean Urkullu Lehendakariak eta Aburto Enplegu sailburuak Lanbidearteko Akordio bat ixteko saioa egin zutela hitzarmenen ultraaktibitatea zerbait luzatzearen. 2012ko uztailean (erreforma indarrean sartu zen unea) iraungita zeuden hitzarmenei PPren erreformak emandako urtebeteko ultraaktibitatea amaitzen ari zen orduan. 2013ko uztailean 5ean izan zen bileran CCOOk, LABek, UGTk eta Jaurlearitzak hartu zuten parte. Confebaskek proposamena ukatu egin zuen.

Adegi, Cebek eta SEA patronalek erabakita zuten, harrezkero, sindikatuok hitzarmenetan

eurek nahi zituzten baldintzak onartu ezean (eskubide galera, lanaldi luzeagoak...) negoziazioa blokeatu egingo zutela bi erreformak -PSOErena eta PPrena- ahalik hobekien baliatzeko. Nola? Negoziatio kolektiboa eremu estatalera eramanez, soldatak eta gainerako baldintzak murrizteko.

3.- ELAREN POSIZIOA NEGOZIAZIO-MAHAIETAN

Erreformak aztertuta, ELAk negoziatio kolektiborako helburu erreibindikatiiboak finkatu zituen: KPlaren erreferentzia zuten soldata-igoerak; prekaritatearen hedapena geldiaraztea; hitzartutako baldintzetan atzerapausorik ez gertatzea eta sinatutako akordioen aplikazioa bermatzeko klausulak, ultraaktibitateaz gainera.

Sektore mailako negoziatioan patronalak eragindako blokeoa ikusirik, ELAk beste erabaki bat ere hartu zuen, enpresa-hitzarmenen negoziatioa bultzatzea, antolakuntza sindikalari lehentasuna ematen zelarik. ELAk bere indar-erlazioa hobetu nahi du enpresarien alde bakarreko jokabideak eragozteko. Erantzun koherentea zen, orduan eta orain, ekintza sindikala aktibatzea enpresa-hitzarmenak lortzeko.

Negoziatio sektoriala blokeatuta ikusirik, ELAk enpresa-hitzarmenak negoziatzea bultzatu zuen, antolakuntza sindikalari lehentasuna emanez

ELAk sekula ez ditu sektore-hitzarmenak gutxietsi. Alabaina, erreformak ikusirik, erabaki zuen sektore-hitzarmenak ez zirela jada derrigor bete beharreko minimoak; patronalak hitzarmen horietako gehienak erabat kontrolpean zituela -areago langabezia maila hain altua zen une batean- eta, gainera, estatizazioaren mehatxuak lurralde eremuko negoziatio sektoriala edukirik gabe utz zezakeela.

Estatizazioaren hipotesia errealitate gordin bilakatu zaigula agerian geratu da.

4.- EGUNGO EGOERA: HITZARMEN ESTATALETATIK EUSKAL EREMUAN NEGOZIATZEA GALARAZTEN DA

ELAk bazuen arrazoirik fidakaitz izateko: estatizazioaz baliatzen dira negoziatio kolek-

tiboa zeharo pobretzeko, euskal lurraldeetan eta Estatuko beste inguru batzutan.

Estatizazioa funtsezko mekanismoa da euskal negoziatio kolektiboa eta Estatuko beste eremu batzutakoa erabat pobretzeko

ESTATALIZAZIOAREN ADIBIDEAK. CCOOK, UGTk eta CEOEk erabaki dute probintzia mailako sektore-negoziatio kolektiboa deuseztatu edo hustu egingo dutela.

1.- **Ostalaritza sektorerako Lan-Akordioak (ALEH)** beretzat gordetzen ditu hainbat negoziatio-gai, besteak beste, subrogazio laborala, eta negoziatio-eremu berriak irekitzeko aukera galarazten du estatuko batzorde parekideak baimenik ematen ez badu.

2.- Madrilen sinatutako **Sukaldaritza Hitzarmenak** berariaz galarazten du beste edozein eremutako negoziatioa, estatuko batzorde parekideak baimena eman ezean. Adibidez, Bizkaian negoziatzeko aukerari betoa jartzen zaio, akordio hura sinatu duten sindikatuek bertoko Ostalaritza Hitzarmenean ordezkartzaren %18,74 besterik ez badute ere. Akordio estatalean kolektibitateetako langileen tzat soldata %50 murriztea eta lanaldia urtean 50 orduz luzatzea finkatzen da. Eusko Jaurlaritzak bere lizitazioetan hitzarmen negargarri hau inposatzen du bere azpikontratean aplikatzeko.

3.- **Lorazaintzako Hitzarmena.** Honek dioenez, estatu eremuan negoziatutako gaiak ezin dira beste esparruetan negoziatu.

4.- **Ileapaindegietako Hitzarmena.** Estatuko akordioak beste eremu txikiagoetan arautu ezin den hainbat gai gordetzen du beretzat: aldi baterako ezintasunen osagarriak, diziplina-erregimena, etab. Gainera, exijitzen du eremu berriak irekitzeko estatuko batzorde parekideari jakinaraztea.

5.- **Drogeria, lurrindegi eta belardendetako Hitzarmena.** Negoziatio kolektiborako honako egitura sortzen da: Estatuko Hitzarmena, Autonomi-erkidegokoa eta enpresakoa. Beraz, hitzarmen probintzialak desagertu egiten dira. Ondorioz, haue-

tan jasotako antzinasun osagarria ez da sortzen eta soldata-eskala bikoitzei bide ematen zaie.

6.- Estatuko Merkataritzako Akordio Markoa. Estatu mailako hitzarmenaren irau-naldia bukatu aurretik hitzaurrea aldatu nahi zen, eremu probintzialak ez aintzatesteko, gai batzuk erreserbatzeko eta egitura-osagaiak ezartzeko, Euskal Autonomi-Erkidegorako Merkataritzako Akordio Markoa indargabetzearren. ELAK sinatutako Akordio Marko honen xedea EAEko merkataritzako hitzarmen guztiek aplikatzerakoan estatuko gainetik lehentasuna izatea zen.

ELAK eta CECOBek Bizkaiko Ehungintza Merkataritzako Hitzarmena (sektore honetan ELAK ordezkartzaren %80 du) eta aipatutako Akordio Marko Sektoriala sinatu ostean Estatuko Merkataritzako Akordio Markoaren mahaian CCOOeko ordezkari batek esan zuen: "badakizue zertara etorri garen: euskal Akordio Marko Sektoriala akabatzea". Oraingoz -baita Estatuko patronal batzuk, horien artean CECOB, aurka daudelako ere- ez dute lortu.

7.- Metalgintza sektorean, CCOOK, UGTk eta Confemetal patronalak duela gutxi lehen **Hitzarmen estatala** adostu dute. Bere hitzaurrean CCOOK eta UGTk adierazten dute estatu mailan soldatak bateratzeko asmoa. Sektore honetan probintzia guztiek beren errealitateari egokitutako lan-hitzarmen bat dute; hau da, ez dago araugintza hutsunerik. Gainera, agerikoa da Gipuzkoak eta bere metalgintza industriak ez duela zerikusirik, esaterako, estatuko beste lurralde batzuerkin.

Soldatak bateratzea Euskal Herriko metalgile guztientzako atzerakada oso larria izango litzateke. Hitzarmen berrian, gainera, estatu-eremuaren nagusitasuna ezar-tzen da eta esaten da bere batzorde parekideak beste eremuetako negoziazioan esku hartu ahal izango duela, tokian tokiko ordezkariak sindikal edozein dela ere.

Akordioaren funtsak formazio-eredu bat blindatzeko asmoa du, helburu bakarrare-

kin: sinatzen duten organizazioei finantzazioa ematea.

8.- Madrilen egindako akordio baten bidez CCOOK, UGTk eta patronalak erabaki dute kontserbagintzan ez dagoela estatua ez den beste eremurik. Horrela, **Bizkaiko Kontserbagintza Sektoreko hitzarmena** indargabetu egiten dute, honek mugagabeko ultraaktibitatea araututa zuen arren.

9.- Eraikuntzan, CCOOK eta UGTk 2012an -Rajoyren erreforma baino egun batzuk lehenago- sinatu zuten hitzarmena izan zen lehena Zapateroren erreformak eskaintzen zituen estatalizazio aukerak bereganatzen. Testu honetan ezartzen da gaien %90 soilik estatu eremuan negoziatuko dela. Hitzarmen hau aitzindari da ere funts publikoak sinatzaileen esku jartzeari dagokionez, Eraikuntzako Txartel Profesionalaren bidez.

10.- Pertsona dependenteentzako Arreta Zerbitzuetako eta autonomia pertsonalaren garapenerako Hitzarmen Marko estatala adinekoan egoitza, eguneko zentro, gaueko zentro, etxebizitza tutelatu, etxez etxeko zerbitzu eta teleasistentziako langileei aplikatzen zaie. Akordio honek ezartzen du negoziatzeko lehentasunezko eremua estatua dela. Lan-hitzarmenen kopurua gutxitu beharra aipatzen da; ondorioz, negoziatio-eremu berriak irekitzeko estatuko batzorde parekidearen baimena beharrezkoa litzateke.

5.- ESTATALIZAZIOAK GENERO-ERAGIN KALTEGARRIA ERE BADU

Eragindako esparruak aztertuz gero, egiaztatzen da zentralizatuko sektore gehienak zerbitzuetakoak direla; hauetan gizon baino emakume gehiagok dihardu, lanaren banaketa sexualaren ondorioz. Horrenbestez, zuzena da esatea estatalizazioak areago okertzen duela emakumeek pairatzen duten prekaritatea, pobretzea eta soldata-arraila.

6.- PATRONALAREN ORDEZKARITZA ZALANTZAN

ELAK nabarmendu nahi du negoziatio haue-tan guztietan patronalek ez dutela beren ordezkariak egiaztatu nahi, baina nahita ere ezingo lukete ere. Ez dute benetako ordezkariak

karitzarik, eta dutena otorgatua da. Beraz, gobernuen laguntzaz joko-arau guztiak hausten dituzten patronal hauekin ELAk ez du onartuko ez daukaten ordezkariak aitortzerik.

Patronalek ez dute ordezkariarik eta beren zilegitasuna otorgatua da

Ez da Confebask estatalizazioari etekina atera nahi dion bakarra. Euskal enpresa askok estatu-eremuak hautatzen dituzte beren langileei baldintza okerragoak ezartzeko. Hala jokatzeko du, esaterako, Mondragon Korporazioak (MCC zenak), erabat ukatzen baitu euskal eremuan Autonomi-Erkidegoko edo enpresako hitzarmenak negoziatzeko aukera; bere langileei aipatutako Sukaldaritzako Hitzarmen estatala aplikatzen die.

Honelako enpresek ez dute arazorik espainiar lege eta hitzarmenek eskaintzen dituzten abantailak baliatzeko. ELAk salatu behar du MCCk lan-harremanen marko espainiarren alde egiten duela. MCC nabarmentzen dugu gure herriko ekonomian duen pisuagatik; lehenago ere ELAk salatu zuen Kutxa-bankek berdin jokatu izan duela.

Hortaz, euskal eremuan negoziatzeko eskubidearen aurkako estrategia patronala ari gara pairatzen; estrategia horrek ondorio argiak ditu, dagoeneko antzematen ari direnak, langile-klasearen pobretzean. Patronala legeak eskatzen duen ordezkariarik gabe ari da hori egiten, gainera.

7.- CCOO ETA UGT-REN HIPOKRISIA

CCOO eta UGTren jarrera EAEn hipokrisia hutsa da: Batetik, Hego Euskal Herrian sektoreko negoziazioa defenditzen dutela diote, eta ELAk “abandonatu” egin duela; haatik, sindikatu berberak Madrilen Zapateroren erreformaz baliatzen dira eragozteko euskal gehiengo sindikalek -direnak direla ere- erabaki ahal dezaten non eta zer negoziatu nahi duten.

CCOOen eta UGTren jarrera hipokrisia hutsa da. Madrilen Zapateroren erreformaz baliatzen dira eragozteko euskal gehiengo sindikalek erabakitzea non eta zer negoziatu nahi duten

CCOOk eta UGTk Confebaskekin eta Eusko Jaurlaritzarekin osatutako elkarrizketa sozialeko mahaira bidali zuten agirian proposatzen dute EAE mailan Lanbidearteko Akordio bat negoziatzea, zeinetan ezarriko den “lurralde-hitzarmenak aplikatzeko lehentasuna (...) estatuko beste edozein hitzarmen sektorial edo akordio markoren gainetik”; hau ere diskurtso bikoitz horren adibide dugu. Testuak ez dauka zerikusirik bi sindikatuek Madrilen egiten dutenarekin.

Nafarroan, CCOOk eta UGTk CENekin 2012ko ekainaren 4an sinatu zuten “Lan-harreman, negoziazio kolektibo eta gatazken konponbide autonomorako ereduari buruzko akordioa”; akordio honek 2012ko urtarrilaren 21ean CEOEk, UGTk eta CCOOk sinatutako “Enplegu eta negoziazio kolektiborako Akordioa” (AENC) bere egiten du; negoziazio kolektiboari dagokionez ez du estatalizazioa mugatzeko inolako osagairik.

Gero jakin zen Nafarroan sinatutako akordio hori orduko UPN eta PSNren gobernuak exijitu zuela sinatzaileek funts publiko gehiago jaso ahal zezaten.

8.- EUSKO JAURLARITZAK PATRONALARI BABESA EMATEN DIO

ELAren iritziz Gasteizko gobernuak ez du Lan-Harreman eta Gizarte-Babeseko Euskal Markoa defenditzen.

Eusko Jaurlaritzak ez du Lan Harremanetako eta Gizarte-Babeseko Euskal Markoa defenditzen

Zoritxarrez, EAJren gaurko jokabideak ez dauka zerikusirik 1994an negoziazio kolektibo zentralizatzeko saioa izan zenean agertu zuenaren aldean. Orduan erreforma hartan berme bat sartu ahal izan zuen euskal hitzarmenak ez zitezen estatalizazio oldean galdu. 22 urte igarota, Eusko Jaurlaritzak erabateko babesa ematen die gure herriko langileak pobretzen dituzten estrategia patronalei. Gure aburuz, Jaurlaritzak Confebaskekin elkar hartuta ari da soldaten devaluazioa lortzeko. Lehendakariak esaten duenean bera eta Confebask direla errealitatean dauden baka-rrak, agerian uzten du zenbateraino datozen bat gizarte-ereduan eta arerioak identifikatu eta estigmatizatzerakoan.

EAJren jokabideak ez dauka zerikusirik 1994an negoziazio kolektiboa zentralizatzeko saioa izan zenean agertu zuenaren aldean

Orduko hemerrotekari begira, deigarria da PSOEren eta EAJren arteko akordio hura sasoi hartan Lan ministroa zen Griñanek nola defenditu zuen CCOO eta UGTren kritikei aurre eginez: “EAJrekin adostutako aldaketarekin ez da ezer hausten. Gauza bakarra gertatzen da, negoziazio kolektiboaren artikulazio handiagoa eta askoz ere demokratiagoa”. Esan bezala, hogeita bi urte igarota EAJren posizio politikoak izan duen atzerakada oso larria da.

Horrenbestez, uneko egoerari dagokionez, aipatu beharra dago EAJk zein jarrera hartu duen PSOEek eta Ciudadanosen Pedro Sanchez gobernuburu izendatze aldera sinatu duten Akordioa dela eta. Bertan, negoziazio kolektiboaren atalean bi alderdiek aldeztu dute lurraldeko sektore-hitzarmenak “gainditu” beharrekoak direla. Espainiako Bankuak eskatzen duena, hain zuzen. Bada, ELAk ez daki (eta ez gara bakarrak izango) EAJk PSOERI zein baldintza aipatuko zion estatu mailako gobernu osatzeko akordioaren batera iristekotan. Beldur gara baldintza horiek ezkutatzeko erabakia ez ote den izango hain garrantzi handiko gaian definizio eta ausardia oso urriak agertu dituelako.

Jokabide hau euskal herri-administrazioan duen estrategiarekin lotu daiteke: enplegatu publikoei negoziazio kolektiboa ukatzen dien murrizte-politika bere gain hartzen da. Hau zuzitzeko errepikatzen den argudio eta aitzakia oinarritzeko legedi estatala izan ohi da. Gure ustez, berriz, murrizketa eta soldatak jaisteko politika horietan Estatuarekin bat dator.

Horrekin lotuta dago ere Eusko Jaurlaritzak Gasteizko Legebiltzarrean ELAk aurkeztutako Herri-Ekimen Legegileari eman dion ezezkoa; honen xedea azpikontratetan prekaritatea hedatzen galaraztea zen. Confebaskek “disparate”tzat jo zuen, eta EAJk zein PSE-EEK boikoteatu egin dute.

9.- ZER EGINGO DU ELAK EGOERA HONETAN?

ELArentzat honakoa onartezina da:

1. Estatutik gehiengo errepresentatibo demokratiko bati galaraztea lan-baldintzak modu eragingarrian arautzeko aukera. Hau ukatzeak askatasun sindikala urratzen du, gure ustez.
2. Estatalizazio hori, gainera, negoziatzeko ordezkari-tza duela egiaztatu nahi eta ezin duen patronal batek egitea.
3. Urkulluren gobernuak patronalaren estrategiari ematen dion laguntza. Epe luzeagora begiratuta, pobretzeko estrategia honek kalte oso handia eragingo dio gure herriaren kohesio sozialari, eta Eusko Jaurlaritzak horretan parte hartzen ari da.

ELAk euskal indar politiko guztiei helarazi nahi die aberastasunaren banaketarako tresna egokirik gabe autogobernua hutsala dela: ez dago autogobernurik negoziazio kolektiborik gabe; ez dago autogobernurik lana duintzeko eta aberastasunaren banaketa zuzenagoa egiteko lagungarri diren hitzarmenak indargabetzen badira.

ELAk zentralizatzeko estrategia honi aurre egingo dio. Horretarako honako ekintzak garatuko ditu:

- ✓ Berretsi egingo dugu Lan-Harreman eta Gizarte-Babeseko Euskal Markoarekiko gure konpromisoa.
- ✓ Sektore eta enpresetan ez dugu antolakuntza lana ahaztuko. Sindikatuaren egin-kizun nagusia oraindik ere langileak antolatzea da, beren interesak defenditzeko tresna bakarra hau izanik.
- ✓ EAEko eta Nafarroako parlamentuei proposatzea gure esparruetan negoziazio kolektiboa defenditzeko ekinbideak erabakitzea; ekinbideok ekarri beharko lukete gure autogobernuaren araugintzan negoziazio kolektiboa ere aintzat hartzea.
- ✓ Iñigo Urkullu Lehendakariari eta Uxue Barkos Nafarroako Gobernuko Lehendakariari bilera bana eskatzea.
- ✓ Irakurketa sindikal hau Gasteizko, Iruñeko eta Madrilgo talde parlamentario guztiei helaraztea.

✓ Alderdiei bilerak eskatzea negoziazio kolektiboaren estatalizazioari aurre egiteko beren babesa eskatzeko.

✓ Auzibidera jotzea askatasun sindikalarako eta negoziazio kolektiborako eskubi-dearen defentsan.

Ez dago autogobernurik negoziazio kolektiborik gabe; ez dago autogobernurik lana duintzen duten hitzarmenak indargabetuta

ELAKO BATZORDE ERAGILEA